

ERAKUNDE ADIERAZPENA,
HOLOKAUSTOAREN BIKTIMA IZAN ZIREN DONOSTIARREN OMENEZ

Nahiz eta Auschwitz bihurtu zen aro garaikidean izan den giza ankerkeria handienaren sinbolo, holokaustotzat ezaguna dena Europako lurralde osoan hedatu zen, eta judeei ez ezik beste gizatalde eta komunitate askori ere eragin zien, erregimen naziaren jazarpena eta sarraskitze politika nozitu baitzituzten. Historiako orrialde beltz hori urtero oroitzen da, urtarrilaren 27arekin Holokaustoaren Nazioarteko Eguna ospatuz. Beste hainbat gizatalderen artean, alemaniar, frantses, italiar, espainiar, kataluniar eta euskal herritar borrokalari antinaziek ere nozitu zituzten, beste deuseztatze esparru batzuetan, III. Reichak piztutako eromena.

Mauthausen, Gusen, Dachau, Buchenwald, Ravensbrück (emakumeen esparrua)... eta beste deuseztatze zentro batzuk, hala nola Auschwitz bera, Bergen Belsen, Flossenbürg, Natzweiler, Neuengamme, Sttuthof, Sachsenhausen, Gross-Rosen, Aurigny, Guernesey, Neu Bremm... Horietan guztietan, jatorriz espainiar estatukoak ziren 10.000 borrokalari antifaxista izan ziren. Frankisten sarraskitik ihesi, frantziar lurretan sartu ziren; lehendabizi «iheslari esparru» lotsagarrietan barneratu zituzten, eta 1940tik aurrera deuseztatze zentro horietara eraman zituzten. Erdiak baino gehiago hil ziren han.

Gertaera tragiko haietatik 75 urte igaro direlarik, maizegi topatzen ditugu sarraski haiek ukatu nahi dituzten pertsonak, edo garrantzia kendu nahi dietenak... Horregatik, funtsezkoa da hondamendi hura oroitzeko eta biktimak aintzatesteko politika iraunkor bati eustea. Izan ere, 1945az geroztik izandako nazioarteko adierazpen ugariak gorabehera (giza eskubideena; eskubide zibil eta politikoa; berdintasunarena; herri eta nazioen askatasunarena...), asmo horiek oso toki txarrean uzten dituzten kasu asko aurkitzen ditugu. Antzera gertatzen da frankismoaren biktimekin: oraindik ere babesik gabe daude, espainiar estatuko Fiskaltza Nagusiak ukatu egiten baititu krimen frankistak ikertzeko eginbideak.

Euskal Herriko ikuspegitik, gainera, uste dugu holokaustoaren biktimen ezinbesteko oroimenak eta omenaldiak berariaz aipatu behar dituela jardun justifikaezin hura nozitu zuten berrehunen bat euskal herritarrak, eta haien artean 21 donostiarrak. Haien sufrimenduak holokausto nazia —gertaera tragiko baina gure gizarte esperientziatik urrunekotzat eratzea guztiz bazterrean utzita— gure oroimen kolektiboaren zuzeneko parte bihurtzen du.

Horregatik guztiarengatik egiten du Donostiako Udalbatzak ondorengo

ERAKUNDE ADIERAZPENA

1. Donostiako Udalbatzak, Holokaustoaren Nazioarteko Egunaren (urtarrilak 27) bezperan, nazien jazarpena nozitu zuten pertsona guztiak omendu nahi ditu, eta bereziki 200 bat euskal herritarrak, haien artean 21 donostiarrak:

- Arrate Itoiz, José Miguel	- Iñurieta Ubillos, Ramón
- Azurza Osategui, José María	- Jorge, Ramiro
- Beguery, Luis	- Martiarena, Manuel
- Casanova Forcada, Vicente	- Otermin, Antonio
- Cubas Gonzales, Sandalio	- Pintos Diaz, Francisco
- Echevarría Serrano, Agustin	- Prior, Marco
- Emparán Ortiz, José	- Redondo García, Juan
- Escartín, Durgogue, Javier	- Saez Izaguirre, Facundo
- Galicia, Pedro	- Vila Gonzalez, Eduardo
- García Manuel	- Anabitarte, Santiago
- Garmendia Gainza, Ignacio	

2. Donostiako Udalak aintzatespena eta oroimena adierazi nahi die haiei guztiei. Faxismoaren aurka eta askatasunaren alde egin zuten borroka Euskal Herriaren eta gizadiaren oroimen historikoaren zati garrantzitsua da.

Donostia, 2017ko urtarrilaren 5a

Miren Azkarate Villar
EAJ taldearen bozeramailea

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu taldearen bozeramailea

Amaia Martin Garin
Irabazi-Donostia taldearen bozeramailea